



# Etxarri Aranazko Udala

## **DEIALDIA, OPOSIZIO LEHIAKETA BIDEZKO HAUTABROBEN BITARTEZ, ETXARRI ARANAZKO UDALEKO ZERBITZU ANITZETARAKO IZANGAIEN ZERRENDA OSATZEKO.**

---

### **1.-Arau orokorrak.**

1.1. Deialdi honen helburua Etxarri Aranazko Udalaren beharrei erantzuteko Zerbitzu Anitzetako lan-poltsa bat oposizio-lehiaketa bidez eratzea.

Hautaketa hori gianditu dutenen zerrenda sor daitezkeen kontratazioetarako eta ordezkapenetarako erabiliko da, eta indarrean egongo da beste deialdi bat onartu arte.

1.2. Lanpostuek D mailako ordainsariak izango dituzte.

1.3. Bete beharreko eginkizunak bere maila eta kategoria profesionalari dagozkionak izango dira, besteak beste, obrak eta mantentze-lanak, lorategi eta mendien mantentze lanak, urak, garbiketa, hilerria, atezaintza eta zeregin orokorrak.

### **2.-Requisitos.**

2.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, izangaike baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako Nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartutako estatu bateko nazionalitatea izatea, baldin eta abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera langileen eta haien senideen zirkulazio askea jasotzen badute.

Europar Batasuneko edozein estatuko edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estuetako herritarren ezkontideek ere parte har dezakete, zuzenbidez bereizita ez badaude, eta orobat beren ondorengoek eta ezkontideenek –zuzenbidez bereizita ez badaude– hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

b) Hemezortzi urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

c) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, DBHko titulua, Lanbide Heziketako lehen graduko titulua edo horien baliokidea izatea.

d) Dagozkion eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Funtzio publikoak betetzeko desgaitasun- edo etete-egoeran ez egotea eta administrazio publiko baten zerbitzuetik bananduta ez egotea.

f) Euskara jakitea. Horretarako, C1 ahozko titulua eta B1 idatzia aurkeztu beharko dira edo oinarrietako 4.5. atalean ezarritakoaren arabera, eskatzen den ezagutzaren berariazko proba egin beharko da.

g) B kategoriako gidabaimena izatea.

### **3.- Instancias.**



## Etxarri Aranazko Udala

3.1. Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak Etxarri Aranazko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 10 edo <https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/info.1>) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozeinetan aurkeztu beharko dira, deialdi hau Etxarri Aranazko Udaleko tabloian argitaratzen denetik 7 egun naturaleko epean.

Eskabidea posta-bulego batean aurkeztea erabakitzen bada, gutun azal irekian egingo da, postako langileek data eta zigilua jar diezaioten eskabideari, ziurtatu baino lehen.

Eskaera ez bada zuzenean aurkeztu Etxarri Aranazko Udaleko Erregistroan, eta eraginkortasun administratiboko arrazoiengatik, horren berri eman beharko zaio Etxarri Aranazko Udalari [udala@etxarriaranatz.eus](mailto:udala@etxarriaranatz.eus) helbide elektronikoaren bidez, betiere eskabideak aurkezteko ezarritako epearen barruan.

3.2. Eskabidea II. eranskin gisa argitaratutako ereduaren arabera izango dira. Eredu hori Udalaren bulego orokorrean emango da, eta Internet bidez ere eskuratu ahal izango da, Udalaren webgunean ([www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus)).

Eskabideetan, izangaiek bertan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute.

3.3. Izangaiek eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

-Nortasun Agiri Nazionalaren kopia edo baliokidea.

-Eskatutako titulazioaren kopia edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean lortzeko moduan dagoela egiaztatzen duen dokumentuarena.

-Baloratu beharreko merezimenduak egiaztatzen dituen dokumentazioaren kopia.

-B kategoriako gidabaimenaren kopia.

3.4. Desgaitasunen bat aitortu duten izangaiek hori egiaztatzen duen agiria erantsi beharko diote parte hartzeko eskabideari, organo eskudunak emana. Halaber, beharrezkotzat jotzen dituzten denbora eta bitartekoaren egokitzapen posibleak eskatu ahal izango dituzte; kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute et gainera, aparteko orrian adierazi beharko dute pairatzen duten desgaitasuna eta eskatutako egokitzapenak.

3.5. Eskabideak aurkezteko epea ezin izango da luzatu.

### **4.- Admisión de aspirantes.**

4.1. Behin behineko zerrendak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Etxarri Aranazko Udaleko Alkateak onartutako eta bazteruttako izangaien behin-behineko zerrenda onartzeko ebazpena emango du, eta zerrenda udaletxeko iragarki-oholean eta udalaren web-orrian ([www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus)) argitaratzeko aginduko du. Baztertutako hautagairik ez badago, zuzenean onartuko da behin behitko onartutako pertsonen zerrenda.

Behin behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo 2 egun baliodunetan, baztertutako izangaiek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta hala badagokio, izan ditzaketan akatsak zuzendu.

4.2. Behin betiko zerrendak.



## Etxarri Aranazko Udala

Behin erreklamazioak aurkeztuko epea amaituta, eta horiek ebatzita, Alkatetzak ebazpena emango du onartutako en eta baztertutako en behin betiko zerrenda onartzeko, eta zerrenda hori iragarki-taulan eta udalaren web-orrian ([www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus)) argitaratzeko aginduko du. Ebazpen horretan bertan zehaztuko da probak non, noiz eta zer ordutan hasiko diren.

4.3. Onartutako zerrendan agertzeak ez du esan nahi parte hartzen dutenei deialdian eskatzen diren betekizunak aitortzen zaizkienik. Aurkeztutako dokumentazioa edo Udalaren esku dagoena aztertuta, eskatutako baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, deialdian parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dira.

4.4. Onartutako en eta baztertutako en zerrendak argitaratuz gero, dagokien jakinarazpena egingo da joko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.b) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

4.5. Hizkuntza-maila zehazteko proba.

Euskararen ezagutza C1 maila ahozkoa eta B2 maila idatzia edo baliokidea egiaztatzen duen titulaziorik ez duten pertsonen beren ezagutza egiaztatuko ahal izango dute, eskatutako hizkuntza maila zehazten duen proba bat gaindituz, Nafarroako Administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera. Maila proba hori egin behi duten izangaiek eskabide-orrian adieraz beharko dute.

Proba Sakanako Mankomunitateak egingo du.

### **5.- Hautaketa prozesua garatzea eta baloratzea.**

5.1. Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasea oposizio-fasean gainditu duten izangaiei baloratuko zaie, eta gehienez 30 puntu emango dira, baremo honen arabera:

5.1.1. Esperientzia.

-Nafarroako toki entitate batentzat zerbitzu anitzetako eginkizunak betetzen egindako urte bakoitzeko: 4 puntu urte bakoitzeko.

-Toki erakundea ez den erakunde publiko batean zerbitzu eginkizunak betetzen egindako urte bakoitzeko: 2 puntu urte bakoitzeko.

- Erakunde pribatu batean zerbitzu anitzetako eginkizunak betetzen egindako urte bakoitzeko: puntu bat urteko.

Hilabete kopurua urte osora iristen ez bada, zerbitzua eman duten egunei proportzionalki dagokien puntuazioa emango zaie izangaiei.

Aurreko bi atalen baturak ezin izango ditu 20 puntu gainditu.

5.1.2. Prestakuntza.

Izangaiak jarraian ageri diren puntuak eskuratuko ditu gai hauei buruzko ikastaroak egin izanagatik (10 puntu gehienez ere).

Ez da punturik emanen 5 ordutik beherako ikastaroengatik.

–Erdi eta goi mailako lanbide heziketako ikasketa tituluengatik, lanpostuarekin ikustekoa badute:



## Etxarri Aranazko Udala

- Erdi mailako gradua: energia eta ura lanbide-arloa; instalazioa eta mantentze-lanak lanbide-arloa; elektrizitatea eta elektronika lanbide-arloa; igeltserotza eta eraikuntza lanbide-arloa; arotzeria lanbide-arloa edo deialdiaren xedeko lanpostuarekin lotutako goi mailako heziketa zikloa: 2 puntu.
- Goi mailako gradua: energia eta ura lanbide-arloa; instalazioa eta mantentze-lanak lanbide-arloa; elektrizitatea eta elektronika lanbide-arloa, igeltserotza eta eraikuntza lanbide-arloa; arotzeria lanbide-arloa edo deialdiaren xedeko lanpostuarekin lotutako goi mailako heziketa zikloa: 3 puntu.

–Deialdiaren xede den lanpostuarekin lotutako ikastaroak egiteagatik, honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- 0,30 puntu, 5 eta 10 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko.
- 0,40 puntu, 10 eta 20 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko.
- 0,50 puntu, 20 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko.

### 5.2. Oposizio fasea.

#### 5.2.1. Proba teorikoa.

Oposizioaldian, proba teoriko-praktiko bat egingen da. Proba horretan, idatziz erantzun beharko dira test motako galdera batzuk.

Galdera guztiendako hiru erantzun emanen dira aukeran, baina bat bakarria izanen da baliozkoa. Galderak guztiek izanen dute balio bera, eta gaizki erantzundako galderengatik ez da punturik kenduko.

Ariketa hau egiteko izangaiak izanen duten gehieneko denbora epaimahaiak adieraziko du, azterketa hasi baino lehen.

Ariketaren balorazioak 30 puntu egin ditzake gehienez ere eta bazterturik geldituko dira 15 puntu eskuratzen ez duten izangaiak.

Proba hau egiteko ezin da inolako testurik kontsultatu, ez eta kalkulagailurik edo bestelako materialik erabili ere, ez bada bolaluma urdina edo beltza.

#### 5.2.2. Proba praktikoa.

Proba praktikoa honako gai hauetako bati edo batzuei buruzkoa izanen da: elektrizitatea, mekanika, iturgintza, igeltserotza, soldadura eta/edo informatika.

Epaimahaiak erabakiko du proba hauetako bakoitza egiteko zer denbora izanen den.

Ariketaren balorazioak 40 puntu egin ditzake gehienez ere eta bazterturik geldituko dira 20 puntu eskuratzen ez duten izangaiak.

#### 5.2.3. Ariketak plika sistemaren bidez egingen dira.

5.2.4. Probarako dei bakarria egingen da. Parte-hartzaileek aldean eraman beharko dute nortasun agiri nazionala, pasaportearen edo gidabaimena. Nor diren frogatzen ez dutenak edo agertzen ez direnak baztertu egingen dira.

5.2.5. Hautaprobea egiteko, desgaitasun aitorturen bat dutenendako bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak jarriko dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.



## Etxarri Aranazko Udala

### 6.–Kalifikazio epaimahaia.

#### 6.1. Kalifikazio epaimahaia honako hauek osatuko dute:

–Epaimahaiburua: Maria Saez de Albeniz Bregaña, Etxarri Aranazko alkatea. Ordezkoa: Lur Iosu Larraza Lopez, Etxarri Aranazko alkateordea.

–Mahaikidea: Gorka Garate Olano, Etxarri Aranazko zerbitzu zerbitzuetako arduraduna. Ordezkoa: izendatu beharrekoa.

–Mahaikidea: Susana Mendinueta Flores, Cederna Garalur. Ordezkoa: izendatu beharrekoa.

Epaimahaikide idazkaria: Miren Pereda Razkin, Etxarri Aranazko Udaleko idazkaria. Ordezkoa: Urtzi Nazabal Goñi, Sakanako Mankomunitateko idazkaria.

6.2. Kalifikazio epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, baldin suertatzen badira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan abstentziorako ezarriak dauden arrazoiak. Halaber, izangaiek mahaikideak errekusatzen ahalko dituzte inguruabar horiek gertatzen direnean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritako moduan.

#### 6.3. Hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da epaimahaia.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez ere kideen gehiengo osoa bertan ez bada.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatu eta aplikatzeko garaian sortzen diren gorabehera guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistak hartzen ahalko ditu probarako, eta horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan bakarrik emanen diete laguntza epaimahaikoei.

### 7.–Emaitzak.

7.1. Parte-hartzaileen artean berdinketarik gertatuz gero, kalifikazio epaimahaiak ebatziko du, kontuan izanik zein izan den oposizioaldiko puntuaziorik handiena. Arestian ezarritako irizpideak aplikatuta ere berdinketak badirau, kalifikazio epaimahaiak ebatziko du, berariazko zozketa bakar baten bidez. Zozketaren emaitzak web-orrian (deialdiaren aipuan) eta Etxarri Aranazko Udaleko iragarki-taulan argitaratuko dira.

7.2. Behin proben kalifikazioa bukatuta, epaimahaiak Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian ([www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus)) jarriko du probak gainditzen dituzten izangaien zerrenda, lortu duten puntuazioaren ordenaren arabera.

### 8.–Aldi baterako kontrataziorako dei egitea.

8.1. Gainditu duten izangaiei Etxarri Aranazko Udalean gertatzen diren beharren arabera egingen zaie dei, jarraikiz ezarritakoari deialdi honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan.

8.2. Lokalizatzeko, izangaiek harremanetarako telefono bat bederen eman beharko dute (harremanetarako beste telefono batzuk ere eman ditzakete), bai eta helbide elektronikoko bat ere. Informazio hori etengabe eguneratua eduki behar dute.



## Etxarri Aranazko Udala

### 9.–Datu pertsonalen babesa.

Bat etorritz 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikularekin (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), izangaiei honako hau jakinarazten zaie:

–Etxarri Aranazko Udala da izangaiek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna.

–Datuen tratamenduaren helburua da langileak hautatzea eta deialdiko lanpostua betetzea.

–Oinarri juridikoa honako hau da: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1.b) artikulua: kontratu bat gauzatzeko behar den tratamendua, interesduna kontratu horren parte bat denean, edo berak eskatuta, beharrezkoa baita kontratu aurreko neurriak aplikatzeko, eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1.c) artikulua: behar den tratamendua, tratamenduaren arduradunak bete dezan aplikatzekoa zaion legezko betebeharrak.

–Datuak zer helburutarako bildu diren, helburu hori lortzeko beharrezkoa den denbora guztian gordeko dira, bai eta deialdiaren edo datuen tratamenduaren ondoriozko erantzukizun guztiak zehazteko beharrezkoa den denbora guztian ere. Artxiboen eta dokumentazioaren gaineko araudian ezarritakoa aplikatuko da (Nafarroako Toki Erakundearen agiriak ebaluatu eta ezabatzeko jarraibideak).

–Datuak komunikatuko dira legeak aurreikusitako kasuetan (5/2015 Legegintzako Errege-Dekretua, urriaren 30ekoa), barnean dela gardentasunaren atarian argitaratzea, bat etorritz 5/2018 Foru Legearen 19.2. f artikularekin.

–Titularrek eskubidea izanen dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko, kontra egiteko eta datuak eramateko, udal bulegoetan, egoitza elektronikoen bidez (<https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/dossier.0.1>) edo datuak babesteko ordezkararen helbidearen bidez ([dpd@etxarriaranatz.eus](mailto:dpd@etxarriaranatz.eus)).

Halaber, uste badute datuen tratamendua ez datorrela bat indarrean den araudiarekin, eskubidea dute erreklamazioa aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari ([aepd.es](http://aepd.es)), edo, bestela, aldeztu aurretik datuak babesteko ordezkarari (arestian adierazitako helbidean). Ordezkariek gehienez ere bi hilabeteko epean helaraziko die bere erabakia.

### 10.–Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka nahiz oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke, aukeran:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu edo errekurritzen den aplikazio egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita, aurretiaz organo egileari errekurritzeko asmoaren berri emanik; edo, bestela,

b) Gora jotzeko errekurtsioa, zuzenean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu edo errekurritzen den aplikazio egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita.

c) Berraztertze errekurtsioa, egintza eman duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.



# Etxarri Aranazko Udala

Kalifikazio epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

## ANEXO I MODELO INSTANCIA

Don/Doña....., mayor de edad.....con DNI número....., nacido/a el día..... natural de.....(provincia/país.....). con domicilio en....., calle....., número....., piso.....código postal....., teléfono móvil.....correo electrónico.....comparece y como mejor proceda, EXPONE:

-Que cumple en tiempo y forma todos y cada uno de los requisitos exigidos en la convocatoria.

-Que acompaño la documentación requerida para participar en la convocatoria.

-Que a efectos de acreditar el conocimiento de euskera a nivel C1 hablado y B1 escrito:

Adjunta a la presente instancia copia autenticada de la documentación que acredita estar en posesión del conocimiento de euskera \_\_\_\_\_.

Solicita la realización de la prueba acreditativa del conocimiento de euskera.

Que padece discapacidad, por lo que solicita las adaptaciones que se señalan por los motivos que se expresan (en folio aparte se especificaran las adaptaciones solicitadas y los motivos de la petición).

Que aporta documentación acreditativa de la condición de minusvalía expedida por organismo competente.

Que acompaña a la instancia fotocopia compulsada de los méritos para la fase de concurso.

Y SOLICITA su admisión al citado proceso de selección.

En \_\_\_\_\_ a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_.

(Firma)



## Etxarri Aranazko Udala

Protección de datos.– En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso, se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias municipales en el procedimiento de selección y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos de este Ayuntamiento o Entidad, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General.